

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

CURSOS DE VERANO
UDAKO IKASTAROAK

Ekologiari buruzko Nafarroako Udako Eskolaren 9. edizioa: Ekologiarekin jolasean

29 - 30 EKAINA

Ingurumen Hezkuntzako Iruñeko Museoa

■ Zientzia Esperimentalak

🗨 Castellano

📖 Kredituak: 0,5

📋 20 plazas

€ 15

🎓 10 ordu

📍 Ingurumen Hezkuntza

📝 Bukatuta, Concluido

📅 2023ko ekainaren 27a arte

Prozesu ekologikoak ulertzeko konplexuak izan daitezke modu akademikoan ikasten badira, baina ikasteko errazak modu ludikoan esperimentatzen badira.

Ez dago ezer aplikagarriagorik, faktore ekologikoen elkarren artean nola eragiten duten ulertzeko, landare-zelula baten, zuhaitz espezie baten, animalia-espezie baten edo gobernu nazional baten "azalean" jartzea baino.

Gainera, prozesu eta interakzio ekologiko horiek kontuan hartu beharrekoak dira gure gizartearen ingurumen-erronkak konponduko dituen kudeaketa jasangarri egokia lortzeko.

Ulermen hori errazteko, ikastaro honetan lau mahai-joko erabiliko dira, parte-hartzaileek aukera izan dezaten ingurumen-interakzioak eta oinarrizko prozesu ekologikoak esperimentatzeko lau eskala espazialetan:

- Landarea
- Basoa
- Bioma
- Planeta

Ikastaroak izaera ludiko nabarmena izanen du. Ez da aurkezpen akademikorik egonen, baizik eta zenbait talde mahai-joko baten inguruan bilduko dira ikuspegi ekologikotik eta eskala desberdinetan garrantzitsua denari buruz hitz egiteko, eta, horrez gain, dibertitu egingen dira joko bakoitzaren helburuak lortzen saiatuz.

NUPEko Ekologiako eta Ingurumeneko ikerketa-taldeko begirale batek gidatuko du talde bakoitza.

Programatutako jarduera motak direla-eta, ikastaroa naturan eta ingurumenean interesa dutenentzat zein publiko ororentzat dago zabalik, ikasle, familia eta 12 urtetik gorako haurrak barne, betiere mahai-jokoak gustuko badituzte edo, besterik gabe, goiz pare bat igaro nahi badituzte faunari, florari eta ingurumen kudeaketari buruzko mahai-joko modernoetan jolasten.

NORENTZAT

12 urtetik gorako pertsonak

HELBURUAK

Landareen funtzionamenduari, ekosistemei eta klima-aldaketari buruzko oinarrizko ideiak ikastea.

Faktore ekologikoen arteko interakzioak aztertzerakoan eskala espazialak duen garrantzia ulertzea.

Kontzeptu eta prozesu ekologikoak praktikatzeko eta simulatzeko gaitasuna garatzea, horretarako mahai-joko komertzialak erabiliz.

IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Juan Antonio Blanco Vaca, NUPEko Zientzien Saileko irakaslea

OSTEGUNA 29 EKAINA

9:00 Inaugurazioa

Ongietorria ikastarora

Juan A. Blanco, ikastaroaren zuzendaria

Iruñeko Udalaren edo Ingurumen Hezkuntzako Museoaren ordezkaria

Unibertsitate Proiektzioko Errektoreordetzako ordezkaria

9:15 Lana eta jolasa taldean

Landareen funtzionamendua CELLULOSE mahai-jokoarekin

Landarearen eskalan esperimentatzea ingurumen interakzioak eta oinarrizko prozesu ekologikoak, eta biologia zelularra praktikatzea

11:45 Lana eta jolasa taldean

Basoen funtzionamendua PHOTOSYNTHESIS mahai-jokoarekin

Basoaren eskalan esperimentatzea ingurumen interakzioak eta oinarrizko prozesu ekologikoak, eta baso-ekologia ulertzea

OSTIRALA 30 EKAINA

9:00 Lana eta jolasa taldean

Espezieen lehiakortasuna eta eboluzioa ulertzea DOMINANT SPECIES mahai-jokoaren bidez

Biomaren eskalan esperimentatzea ingurumen interakzioak eta oinarrizko prozesu ekologikoak, eta eboluzioa esperimentatzea

11:30 Lana eta jolasa taldean

Klima-aldaketa eta garapen jasangarria esploratzea CO2-SEGUNDA

OPORTUNIDAD mahai-jokoarekin

Planetaren eskalan esperimentatzea ingurumen interakzioak eta oinarritzko prozesu ekologikoak, eta klima-aldaketari aurre egitea

Lau saioetako begiraleak NUPeko Ekologiako eta Ingurumeneko ikerketa-taldeko kide hauek dira:

Juan A. Blanco, ikastaroaren zuzendaria,

Lucas G. Castellani eta Leticia San Emeterio, doktoretza ondoko ikertzaileak eta

Ximena Herrera eta Germán Gómez, doktoretzako ikasleak.

ANTOLATZAILEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



Ayuntamiento de
Pamplona | Iruñeko
Udala

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



LAGUNTZAILEA

Nafarroako Gobernua

